

Iragazi
gabeko
txigortua.





Iragazi gabeko garagardo txigortua

Kobre-kolore nabarmena duen garagardo txigortua da Oro. Malta txigortuen usain bizi tipikoek intxaurra eta espezia-ogia gogorarazten dituzte. Gainera kakao-hondo mikatza eta melokotoi lehorra ditu. Garagardo konplexua da, apur bat mingotsa eta oso atsegina ahoan.

Oro egiteko prozesuan ez da hartziduran erabilitako legamia iragazten. Horrela, gorputz eta zapore gehiago lortzen dugu, sentsazio arin eta freskagarriarekin konbinatzen direnak. Gainera, legamia suspentsioan geratzen denez, garagardoak itxura belatua du.

Bilboko zaporea berreskuratu dugu.

1912. urtearen hasieran, bilbotar batzuek erabaki zuten Bilbok kalitatezko garagardo bat behar zuela eta La Cervecera del Norte sortu zuten. Barietate ezberdinen artean, osagai onenak eta elaborratio zainduarekin Oro garagar-

doa sortu zuten. Basurtun jaio zen garagardoa, eta munduan saritua izan da bere zaporeagatik.

Sasoi batean edan eta bizi genuen garagardoa da Oro.



Berezko liturgia duen garagardoa.

Iragazi gabeko garagardoa denez, elaborazio-prozesuaren amaieran kendu ez den legamiaren arrastoak geratzen dira botilaren oinarrian. Horregatik, Ororen esentzia, gorputza eta zaporea gordetzeko, hiru urrats egingo ditugu zerbitzatzean.

Lehenik eta behin, botilaren hiru laurdenak bota behar dira astiro, pixka bat okertuta dagoen kopa batean. Gero botilari eragingo diogu mugimendu zirkular leunak eginez. Horrela, botilaren behealdean geratu diren legamia apurrak jasoko ditugu. Azkenik, edalontzia bertikalean jarrita gainerako garagardoa isuriko dugu, apar ederra lortzeko.

1



Kopa ur hotzarekin garbitu.

2



Okertu kopa eta arretaz garagardoa isuri

3



Utzi garagardo apur bat botilan eta leuntasunez eragin.

4



Gainerako garagardoa bota eta Oroz gozatu.



33 cl-ko itzultzeko botila





Formatuak

30 l-ko kupela

20 l-ko kupela

33 cl-ko itzultzeko botila

25 cl-ko botila

33 cl-ko lata



ORO-K KONTSUMO ARDURATSUA AHOLKATZEN DU. 6°
www.oro.eus - info@oro.eus - T. 902 090 511

